

HEZKUNTZA 

—  
EDE  
—





# 360 udalerriak, aukeren udalerriak

360 Hezkuntza (2023-2027)  
legegintzaldirako 28 neurri



## Irakurtzen jarraitu aurretik... Zer da 360 Hezkuntza?

Gaur egun, dagoeneko ez dugu soilik ikastetxeko paretan artean eta helburu horretara bideratuta dauden uneetan ikasten. Ikastetxe barruan eta kanpoan dauden espazioetan eta uneetan ikasten dugu, gazteguneetan, asteburuko irteeretan, museoetako bisitetan, jarduera artistikoetan, teknologikoetan...

Hortaz, hezkuntzan hitz egiten dugunean, ikuspegia zabaldu behar da, eta hori da 360 Hezkuntza guretzat.

Aukera gehiago eta hobeak lortzeko, beharrezkoa da hezkuntza eskola-orduetatik eta ikastetxeetako espazio fisikotik kanpo zabaltzea, eta ingurune berean lan egiten duten hezkuntzako eragileak elkarren artean lotuta egon daitezen sustatzea.

Hala ere, egun, eskolatik kanpo ikasteko baliabideak ez daude haur eta nerabe guztien eskura, ezta auzo eta udalerrri guztietan ere. Horren ondorioz, aisialdi hezitzailearen eta eskolaz kanpo aisialdiaren arloak desberdintasun-iturri bihurtzen dira horietarako sarbidea duten pertsonen eta ez dutenen artean.

Horregatik, 360 Hezkuntzatik defendatzen dugu ikastetxetik kanpo hezkuntza-berdintasuna bermatzea helburu nagusia eta lehentasunezkoa izan behar dela beraien lurraldeko eta udalerrietako hezkuntza-aukerak eta kohesio soziala hobetu nahi dituzten eragile politikoentzat.

### Aldaketa sustatzen ari diren udalerrri guztiekin bat egin nahi duzu?




**Jatorrizko egileak** Roger Barres y Andreu Termes  
**Itzuli eta egokitua:** EDE Fundazioa  
**Irudiak:** Anythink

Lehenengo edizioa: 2022ko iraila  
© Fundació Bofill, 2022

[www.educacio360.cat](http://www.educacio360.cat)  
[www.edefundazioa.org](http://www.edefundazioa.org)

Ezagutza partekatu egin behar dela uste dugu. Horregatik erabiltzen dugu Creative Commons lizentzia Aintzatespena 4.0 Nazioartekoa (by). Kopiatu, birbanatu, birnahastu edo eraldatzera animatzen zaitugu argitalpen honen berezko edukiak, bai materialetik abiatuta berriak sortzea, edozein helburutarako, baita helburu komertzial batekin ere, eta jatorrizko sorkuntzaren egiletza aitortzeko besterik ez diogu eskatzen.



Udalerrri eta udal askok denbora daramate eskolaz kanpoko eta aisialdi hezitzaileko jardueren eskaintza eta irisgarritasuna hobetzeko ekimenak egiten: udako udalekuak, asteburuko irteerak, pintura- eta musika-eskolak, kirol-jarduerak edo teknologikoak... Baina EAEn, **ikastetxetik kanpoko hezkuntza-aukeretara sarbidea izatea ordaintzeko aukera duten haur eta nerabeentzako eskubidea da bakarrik.**

Udalen lidergoa ezinbestekoa da udalerrriko haur eta nerabe guztiei hezkuntza gehiago eta hobea bermatzeko eta, hala, herri eta udalerrri kohesionatuagoak eta aukera gehiago izateko. Dokumentu honek **2023-2027 legegintzaldian edozein udalek ezar ditzakeen 28 neurri zehatz, errealista eta eraginkor hauteman eta antolatu ditugu, ikastetxetik kanpoko hezkuntza-desberdintasunak murrizteko jauzia egin dezagun.**

Planteatzen ditugun proposamen politikoak hezkuntza arloko ikerketan daude oinarrituta eta udal guztiek dituzten lehentasunekin eta baliabideekin aplika ditzaketen **5 estrategietan daude banatuta**. Galdera honi erantzuten diote: **Zer egin dezakegu gure udaletik?**



## Herri eta hiri hezitzaileak eraikitzen ditugu.

**Desberdintasun sozialak areagotu izana**, isolamendu, pobrezia eta bazterkeriarako modu berriak, buruko-osasun arazoak, eta abar ugaritu izana erronka handia dira auzo, herri eta hiri guztientzat. **Ingurunerik zaurgarrietako haur eta gazteengan inpaktu berezia duten eta izango duten erronkak** dira eta oinarri komunitarioa duten erakundeek, udalek, ikastetxeek eta abarrek erantzun egin beharko diete.

**Erronka komunitario horien aurrean, erantzun komunitarioak.** Ikastetxeek ezin diete eta ez diete bakarrik aurre egin behar egungo erronkei. Horregatik, komunitateak ikasteko, aukerak sortzeko eta gazte, familia eta hezitzaileen beharrei laguntzeko espazioak direnez, egungo erronka berri askoren irtenbidea dira.

**Udalerri kohesionatuak, aukeren udalerrriak.** Hezkuntza-ekosistema indartsu eta konektatua izateak indartsuago eta erresilienteago egiten gaitu hezkuntzako desberdintasunen aurrean, eta, horregatik, egitura, ekimen eta baliabide gehiago behar ditugu hezkuntzako eragileen eta udalerrri guztietako ikaskuntza-inguruneen arteko lotura bermatzeko.

EAEko udalek, erakundeek, plataformek, batzordeek, taldeek eta bestek egunero erakusten dute ikastetxeko kanpoko jarduera hezitzaileek duten garrantzia eta dituzten onurak. Orain **jardun osoko heziketaren udal-politiketan** udalerrri gehiagok inbertitzeko unea da, hezkuntza-eskubidea zabaldu ahal izateko eta hezkuntzako desberdintasunak areagotzea ekiditeko.

**360 udal-gobernu berriak.** Alkate eta hezkuntzako, kulturako, gazteriako eta beste sailletako zinegotzi berriek **360 herriak, auzoak eta hiriak eraikitzeko** zeregina hartu behar dute beraien gain. Berdintasunarekin konprometituta dauden tokiko lider irmoak eta konprometituak beharko dituzten erronkei aurre egiteko ekarpena egingo duten hezkuntza-eremuak.

Foru- eta udal-hauteskunde hauek erabakigarriak izango dira biztanleriaren geruza guztientzako udalerrri kohesionatuagoak, aukerak eta ongizatea eraikitzeko.

**Jardun osoko hezkuntzako erreferenteen ekimenak.** Geroz eta udal gehiago ari dira ikastetxean oinarritzen den hezkuntzatik ikasteko aukera guztiak eta inguruko baliabide eta esperientzia guztiak baliatuko dituen hezkuntzara igarotzeko tokiko proiektu oso esanguratsuak egiten. Hurrengo foru- eta udal-hauteskundeetan, **EDE Fundazioaren xedea da tokiko hautagaiek ikastetxe kanpoko politikak udal- eta foru-programa eta proiektuetarako funtsezko arlotzat har ditzaten lortzea.**

360 tokiko politiken agenda horrekin, foru-aldundietako eta udalerrietako hurrengo liderrentzako ideiak eta proposamenak lehenetsi, antolatu eta eskaini nahi ditugu. Beharrezkoa izango da zinegotzi, alkate eta tokiko gobernu konprometitu eta ausartak izatea, udalerrri hezitzaileagoak eta parekideagoak sortzeko. **Egin dezagun guztion artean!**

## Hezkuntza ikastetxetik harago, udalerrientzako aukera.


Udalerriak dira herritarren eguneroko espazio nagusiak, eguneroko gauzak gertatzen diren lekua, erlazionatzen garena, hezkuntza jasotze duguna, lan egiten duguna... Halaber, herri eta hiri bakoitzak balio handia du ingurune hezitzaile gisa, eta hezkuntza formaletik harago doa, komunitate osoa eta espazio eta ingurune guztiak barne hartzen baititu. **Gertuko geografia horietan, udalak dira herritarren zerbitzu publikoetarako sarbide nagusia.**

Hala ere, udalerrien dibertsitate handia eta tokiko administrazioek baliabideei dagokienez dituzten desberdintasunak direla eta, sarri zaila izaten da tokiko politikez hitz egitea ikuspegi zabaletatik, dibertsitate hori guztia barne hartu eta interpelatzeko. Hezkuntzako tokiko politikek mugak dituzten arren eskumenetan, ikastetxeetatik kanpo **eremu zabala dute estrategia eta tresna berritzaileak garatzeko eta herritarren eragin positiboak izateko.**

### Eskola orduetatik kanpoko jarduera hezitzaileak efektu positibo garrantzitsuak ditu pertsonengan, familiengan eta komunitateengan

Ikastetxez kanpoko hezkuntza-politikak kalitatez eta alderatutako esku-hartze ereduak jarraituz egiten badira, **inpaktu positiboak dituzte bai eskola-eremuan, bai eremu pertsonalean, familian eta komunitatean.** Haur eta nerabeen garapen kognitiboa eta soziala sustatzen dute, batez ere ingurunerik babesgabeenetan; eskolako errendimendua eta irakurtzeko eta matematikarako gaitasunak hobetzen dituzte; ikaskuntzarekiko jarrera positiboak sustatzen dituzte; hezkuntzako aurreikuspenak areagotzen dituzte; haur eta gazteen errealizazio pertsonalean eragina dute; beren gaitasun sozial eta psikoemozionaletan eragina dute; eta arrisku-jarrerak murriztu ditzakete.

Hau da, **ikastetxez kanpo dagoenez, pertsonen ongizatea erdigunean kokatzen du eta hobekuntzak sortzen ditu udalerriko haur, nerabe eta familien bizitzako alderdi garrantzitsuetan.**



## **Ikastetxez kanpoko eremua funtsezkoa da hezkuntza-berdintasuna hobetzeko**

Ikerketa espezializatuak erakutsi duen moduan, **ikastetxez kanpoko jardueretarako sarbidea eta banaketa ez dira parekideak**: sozialki babesgabeak diren ikasleek gutxiago hartzen dute parte eskolaz kanpoko jardueretan, duten kostu ekonomikoarengatik, informazio faltagatik edo hezkuntza-espazio ez formalak ezagutzen ez dituztelako eta erreferenterik ez dutelako. Gainera, Covid-19aren pandemiak eragindako agertokiak joera batzuk indartu ditu eta urritu egin ditu ikasteko aukerak eta erritmoa.<sup>1</sup>

Ikastetxetik kanpoko hezkuntza-aukeretarako sarbidean dagoen berdintasun faltak hezkuntza-eskubidea mugatzen du haur askorentzat.

Gainera, egoera horrek eskola-segregazioa indartzen du, Síndic de Greugesek, FAPACek eta eskuragarri dauden ikerketek behin eta berriz ohartarazi duten moduan.<sup>2</sup> **Ikastetxez kanpoko hezkuntza-aukeretarako sarbidearen berdintasun falta, izatez, hezkuntza-eskubidearen murrizketa da haur askorentzat.**

Horregatik, eskolaz kanpoko politika gako eta estrategikoa da udalerrientzat desberdintasunak murrizteko eta pertsona guztiengako kalitatezko hezkuntza sustatzeko.

## **Aisialdi hezitzaileak eta eskolaz kanpoko jarduerak hezkuntzarekin konprometituta dauden tokiko eragileen dibertsitatea mobilizatu eta aktibatu dezakete.**

Era berean, ikastetxeek eta institutuek rol aktiboa izan dezakete ikastetxe barruan eta kanpoan zubiak eta sinergiak eraikitzeke, elkar indartzeko eta hezkuntza-aukerak haur guztiengana heltzen direla eta guztiek onura berdina dituztela sustatzeko.

---

1 Literatura akademikoak ondorioztatu du pandemiak eta eskolen itxierak baliabide material eta sinboliko gutxiago dituzten familiak eta ikasleak zigortu dituela bereziki. Ikusi adibidez: Bonal, X., & González, S. (2020). The impact of lockdown on the learning gap: familia y school divisions in times of crisis. *International Review of Education*, 66(5), 635-655.. González, S., & Bonal, X. (2021). COVID-19 school closures and cumulative disadvantage: Assessing the learning gap in formal, informal y non-formal education. *Eur opean journal of education*, 56(4), 607-622.

2 Erreferentzia batzuk proposatzen ditugu, hala nola Aliança Educació 360(2018). *Conectando la comunidad por generar más y mejores oportunidades educativas*; González, S. (2016). *Qué impacto tienen las actividades extraescolares sobre los aprendizajes de los niños y jóvenes?* (4. zk). *¿Qué funciona en educación? Evidencias para la mejora educativa* (4. lib.); Términos, A. (2021). *Las actividades extraescolares en los institutos públicos de Barcelona*. Cerdanyola del Vallès: IERMB.



## **Aliantza hezkuntza-komunitatearekin, politika ikastetxetik kanpo hedatzea gidatzeko**

Eskolaz kanpoko politikaren gobernantza sustatzeko beharrezkoa da auzoko, herriko edo hiriko hezkuntzako eragileen, eragile sozialen, kulturalen, kirolekoen eta instituzioen koordinazioa eta laguntza izatea. Eta udalaren lidergoa ezinbestekoa da.

Alde horretatik, hiru mailatako espazioak bermatu behar dira hori gauzatzeko: lehenengoa **adostutako marko politikoa da**, politikak hedatzeko oinarriak legeztatu eta ezartzen baititu; bigarrenak ikastetxetik kanpo esku hartzen duten **komunitateko eragile** guztiak lotzen ditu eta elkarrekin lan egitea ahalbidetzen du; eta hirugarrena **udaleko sailen eta zerbitzuen arteko barne-espazioa da, eta tokiko administrazioak (edo udalerriaz gaindikoak landa-eremuen edo udalerrri txikien kasuan) gidatutako ekintza guztiak eta eskolaz kanpokoak lurraldeko hezkuntza-eragile guztiekin lerrokatuta daudela ziurtatzen du.**

### **360 HEZKUNTZAREN ALDEKO TOKIKO HITZARMENA**

Berdintasun-politikak ikuspegi komunitariorik garatzeko alderdi politikoen eta hezkuntzako eragileen, eragile sozialen, kulturalen, gazteen eta aisialdikoaren arteko adostasun zabaleko hitzarmena.

Hitzarmenak **diagnostikoa, ikuspegi estrategikoa, erronkak eta lehentasunak** jaso eta partekatzen ditu, eta haur, nerabe eta gazte guztien sarbidea eta parte-hartzea bermatzeko politikak hedatzeko esparrua izan behar du, udalerrian eskolaz kanpoko jardueren eta aisialdi-jardueren eskaintza askotarikoa eta kalitatezkoa izan dadin.

### **TOKIKO HEZKUNTZA SAREA – MAHAI KOMUNITARIOA**

Haur eta nerabeei zuzendutako jarduera hezitzaileak eta -programak ezartzeko esku hartzen duten eragileek osatzen dute, eta beharrak hautemateko udalerriko eskolaz kanpoko jardueren eskaintza **eraiki, koordinatu eta ebaluatzeko lan-esparru gisa** eratu eta finkatzen den espazioa da, 360 hezkuntzaren aldeko tokiko hitzarmenak ezarritako parekidetasun- eta kalitate-irizpideen arabera.

Sare honek sustatu eta dinamizatzen duen erreferente teknikoa izan behar du.

### **UDALAREN 360 HEZKUNTZAKO ZEHARKAKO BATZORDEA**

Ikastetxez kanpoko eskaintzan esku hartzen duten udaleko sailek osatzen duten lan-batzordea: hezkuntza, gazteria, haurtzaroa, kultura, kirolak, gizarte-zerbitzuak, parte-hartzea, etab.

Batzorde honen lehentasun nagusia da udaleko sail guztien esku-hartzea tokiko itunaren **erronkekin eta lehentasunekin eta tokiko hezkuntza-sareak planteatzen dituen beharrekin lerrokatua dagoela** bermatzea, eta, era berean, kudeaketa eraginkorretik eta udal-baliabideen optimizaziotik egiten dela ziurtatzea.

# 5 estrategia eta 28 neurri 360 udalerrien alde

Eskolaz kanpoko kalitatezko hezkuntza-aukerak hobetzea haur, nerabe eta gazte guztientzat urte osoan zehar.



Aliantza gidatu eta koordinatzea udalerriko hezkuntza-komunitatearekin, eskolaz kanpoko politika zabaltzeko.

Hezkuntzako berdintasuna eta eskolaz kanpoko jardueretarako sarbidea bermatzea haur, nerabe eta gazte guztientzat.



## Eskolaz kanpoko hezkuntza-aukerak hobetzea

Udako hezkuntza-jardueren programa eskaintzea, parekidetasuna, dibertsitatea eta hezkuntzaren kalitatea bermatzeko.

Udalerriko eskolaz kanpoko jardueren kalitatea eta ikuspegi hezitzailea sustatzea



Udalerriko ekipamenduak eta espazio publikoa mobilizatzea eta eskolaz kanpoko hezkuntza-jardueretara egokitzea





# 1. Aliantza gidatu eta koordinatzea udalerriko hezkuntza-komunitatearekin, tokiko eskolaz kanpoko politika zabaltzeko

Udalaren lidergoa eta koordinazioa gakoa da tokiko hezkuntza-komunitateko baliabide eta indar guztiak mobilizatu eta aktibatzeko. Halaber, beharrezkoa da udal-sarearekin dagoen elkarrizketa ezagutzea eta etengabe mantentzea, eskolaz kanpoko politika planifikatzeko eta hedatzeko.

Osagarritasun-dinamika horretatik, koordinaziotik eta ekimenen eta programen kudeaketatik eskolaz kanpoko eta aisialdiko jardueren udal-eskaintza askotarikoa, parekidea eta kalitatezkoa pentsa daiteke.

## Neurriak

- 1.1 **Eskolaz kanpoko hezkuntza-jardueren katalogoa** sortzea, tokiko eskaintza osoa barne hartzeko eta udalarena, ikastetxeena, IGErena eta udalerriko komunitate sozio-hezitzaileko eragile guztiena ere txertatzeko.

Katalogoak hezkuntza-aukerak zabaltzeko eta udalerrian hautemandako beharrei erantzuteko funtsezkoak diren jardueren programazioa bermatu beharko du.

Katalogo hori paperean edo webgune bateko bilatzaile baten formatuan egin daiteke, udalerriko hezkuntza-jardueren eskaintzaren baliabide eta aukeren gaineko informazio esanguratsu eguneratua lortzea errazagoa izan dadin.

- 1.2 **Eskolaz kanpoko hezkuntza-jarduerak hornitzen dituzten hezkuntzako eragileei (erakunde sozio-hezitzaileak, kulturalak, kiroletakoak, familiak, etab.) laguntzeko udalerriko katalogoa eskaintzea**, haien lana kalitatearen eta jarraipenaren bermearekin gauza dezaten: baliabide ekonomikoekin, laguntzarekin, hainbat arlotan espezializatutako aholkularitzarekin, prestakuntzarekin, lan-tresnekin, hobetzeko pizgarriekin, elkartzeko eta trukerako espazioekin, etab.



- 1.3 **Eskolaz kanpoko jardueren udalerriaz gaindiko programazio koordinatua eta partekatua diseinatzea**, udalerriaz gaindiko administrazioetan (eskualdeetako kontzejuetan, aldundietan) partekatutako edo erabilgarri dauden baliabideak erabiliz.

Baliabideen falta muga garrantzitsua da askotan eskolaz kanpoko hezkuntza-programa anbiziotsua bermatzeko, eta, horregatik, beharrezkoa da beste udal eta erakunde batzuekin lankidetzak-mekanismoak bilatzea. Bestalde, askotan, programa eta jarduerak hobeak sor daitezke udalerriaz haragoko ikuspegiarekin diseinatu eta garatzen badira. Kasu horietan, eskualdeko edo udalerriaz gaindiko koordinazioarako eta lankidetzarako tresnak sortuz hobetu egin daitezke bai eskolaz kanpoko jardueretarako sarbidea, baita kalitatea ere.

- 1.4 **Eskolaz kanpoko jarduerak hezitzaileei buruzko informazio-bulegoa irekitzea familientzat izena emateko aldi zehar**, udalerriko jarduerak hezitzaileei buruzko informazioa, orientazioa eta izen-ematea errazteko.

Funtsezkoa da orientazio eta informazio irisgarria, ulergarria eta, hala badagokio, pertsonen dibertsitate linguistikoari eta funtzionalei egokitua eskaintzea jarduerari buruz, egutegiari buruz, ordutegiari buruz, programa hezitzaileari eta aisialdiari buruz, prezioei eta bekei/dirulaguntzei buruz, etab. Halaber, ezinbestekoa da izena emateko tramiteak eta eskolaz kanpoko jarduerekin lotutako beste administrazio-prozesu batzuk (bekak, dirulaguntzak...) egiten laguntzea, batez ere zailtasunak dituzten familiei.

- 1.5 Udalerriko haur eta nerabeek parte hartzeko espazioak (haurren batzordea, nerabeen batzordea, gazteen asanblada...) elkar lotzea eta eskolaz kanpoko udako jarduerak hezitzaileak eta espazioak diseinatzen laguntzea.

Gazteen eta nerabeen ahotsak eta iritziak zeresana izan behar du eskolaz kanpoko eta udako hezkuntza-politikaren diseinuan. Horregatik, beharrezkoa da udalerriko gazte eta nerabeekin etengabeko elkarriketa izatea haien espazio eta jardueretan; beharrezkoa da haien ikuspegia sartzea eskolaz kanpoko jardueren eta eskolaz kanpoko aisialdiaren antolaketan, balorazioan eta erabakiak hartzeko prozesuan, dituzten interesei, ezinegonei, aurreikuspeni eta beharrei erantzuteko, eta haien dibertsitatea, kalitatea eta irisgarritasuna bermatzeko.



## 2. Hezkuntzako berdintasuna eta eskolaz kanpoko jardueretarako sarbidea bermatzea haur, nerabe eta gazte guztientzat

Balio hezitzaile handia duen arren, eta eskolaz kanpoko abantaila indibidual eta kolektiboak dituen arren, oraindik ere sarbidean eta banaketan desberdintasun handiak daude. Era berean, horrek eskola-segregazioaren dinamikak ere indartzen ditu. Hezkuntza-berdintasunean aurrera egiteko, beharrezkoa da eskolaz kanpoko jardueretarako sarbidea bermatzea eta sustatzea udalerriko haur, gazte eta familia guztientzat, bereziki familiarik zaugarrienentzat edo parte hartzeko muga gehien dituztenentzat.

Estrategia horri esker, udalak baliabideak mobilizatzen ditu eta politika tokiko eskolatik kanpo planifikatu eta jakinarazten du, hezkuntzaren berdintasuna bermatzeko eta udalerriko familia guztiek eskolaz kanpoko jardueretara sarbidea izateko, muga ekonomikoak, kulturalak, informatiboak, digitalak edo generoarenak gaindituz.

### Neurriak

- 2.2 2.1 **360 beka sortu eta eskaintzea** profil zaugarria duten 6 eta 16 urte bitarteko haur eta nerabeen parte-hartzea sustatzeko, batez ere jarduera artistiko, zientifiko eta teknologikoetan, astean bi arratsaldetan gutxienez; edo bekei eta hezkuntzako dirulaguntzei bideratutako aurrekontua handitzea.

Zaugarritasun-arrisku handiagoa duten profilen sarbidea bermatzeko, bekak eskatzeko izapidea erraztu behar da (kostuaren % 100 barne hartzeko aukerarekin) arrisku sozialeko txostena duten haur eta nerabeei zuzenean emanaz.

- 2.2 **Eskolaz kanpoko jarduera hezitzaileen prezioen tarifa ezartzea edo zabaltzea**, jardueren prezioak herritarren errentaren eta erosteko gaitasunaren arabera ezartzeko. Neurri hori udal musika-eskoletan, arte-eskoletan eta udalak eta tokiko erakundeek eskaintzen dituzten beste jarduera eta zerbitzu batzuetan ezar daiteke.

- 2.3 Eskolaz kanpoko jarduera hezitzaileetako (udalaren titulartasunekoak edo funts publikoekin finantzatuak) **plazen % 30** zaugarritasun-egoeraren arriskuan dauden parte-hartzaileentzat gordetzea eta plaza horiek ikastetxeetako eta gizarte-zerbitzuetako bideratzeekin betetzea.



- 2.4 **Eskolaz kanpoko jardueren eskaintza orekatua eta kalitatezkoa bermatzea** auzo eta udaleko sail guztietan, batez ere ehundura sozial txikiagoa duten horietan eta/edo zailtasun altuko eta ikastetxeetan.



Eskolaz kanpoko jarduerak diseinatu eta programatzeko garaian, auzo guztietarako jarduerak proposatu beharko dira, batez ere, sarbiderik zailena duten auzoetan edo udal-ekipamenduetatik urrutien dauden auzoetan, eta laguntza tekniko eta logistikoa eskaini behar zaie auzoetako erakundeei eskolaz kanpoko jarduerak egiteko behar adina espazio, material eta baliabide izateko. Eskari nahikorik ez dagoen kasuetan, beste aukera batzuk eskain daitezke, hala nola programa sozio-hezitzaileak bitarteko irekietan, espazio publikoko jardueren dinamizaziotik abiatuta.

- 2.5 **Mugikortasunerako laguntza zuzenak sortzea**, esaterako, udalerriko garraio publikoa doan izatea gazte eta nerabeentzat, eskolako garraioaren eta garraio publikoaren maiztasuna eta ordutegiak egokitzea, eta ikastetxeetarako bideak egokitzeo aukera aztertzea, haur, nerabe eta gazteen mugikortasuna errazteko eta, hala, eskolaz kanpoko jardueretara joango direla bermatzeko.



- 2.6 **Laguntzeko profesionalak prestatzea, kontratatzea edo diruz laguntzea** eskolaz kanpoko jarduera hezitzaileetan, diskriminazioak ekiditeko eta dibertsitate funtzionala duten pertsonen parte hartzen dutela eta jarduerak garatzen dituztela bermatzeko prestakuntza espezifikoarekin.

Beharrezkoak dira gizarteratzeko figurak dibertsitate funtzionala duten parte-hartzaileei jardueretan parte hartzen laguntzeko edo hezkuntza-eragileei dibertsitate funtzionala duten parte-hartzaileak artatzeko eskumenen prestakuntza eskaintzeko. Eta posible bada, talde berdinak mantendu beharko dira jarduerak garatzen diren aldi osoan zehar.

- 2.7 **Eskolaz kanpoko jarduera hezitzaile guztien eskaintza komunikatzeko eta zabaltzeko material guztiak berrikusi eta diseinatzea, diskriminazioak saihesteko** generoagatik, jatorriagatik eta adinagatik, eta eskolaz kanpoko jardueren sarbide dibertsoa eta parekidea sustatzeko.

Alde horretatik, **web-bilatzaileak irisgarria** izan behar du udalerriko familia guztientzat, baita haur eta gazteentzat ere, eta hedatzeko kanalak eta hizkuntzak dibertsifikatu egin behar dira pertsona guztiengana heltzeko.



2.8 **Ikasturte hasieran, eskolaz kanpoko jarduerak probatzeko aukera eskaintzea** batez ere irisgarritasun txikiagoa duten haur eta nerabeentzat, ezagutu ditzaten eta parte-hartzea susta dezaten.

Proba horietan genero-ikuspegia ere hartu behar da kontuan, neskek maskulinizatuta dauden eskolaz kanpoko jarduerak (esaterako, jarduera teknologiko eta zientifikoak) balora ditzaten, eta mutilek feminizatutakoak (artistikoak, adibidez).

2.9 **Espazio informatiboak eta familientzako laguntza pertsonalerako espazioak eskaintzea** zaurgarritasun-arriskua duten profiletzat eta eskolaz kanpoko jardueretan parte-hartze txikiagoa dutenentzat, jarduerak dituzten abantailak jakinarazteko, aurreiritziei aurre egiteko eta zalantzak argitzeko, izena emateko eta laguntzak eskatzeko laguntza eskaintzeko, jardueren hautaketan orientazioa eskaintzeko, alderdi praktikorik esanguratsuenen berri emateko, etab. Horretarako, bitartekarien edo familien hurbileko figuren laguntza eska daiteke.

2.10 **360 udaleko dinamizatzailea ezartzea** ikastetxeetan edo udal-ekipamenduetan, haur, nerabe eta gazteei eskolaz kanpoko jarduera hautatzen eta izena ematen laguntzeko, eta jardueraren gainera jarraipena egiteko. Halaber, pertsona hori garrantzitsua izango da eskolaz kanpoko jardueretako parte-hartzea sustatzeko, prestakuntza-ibilbideak diseinatzeko eta hezkuntzako laguntza-espazioak sustatzeko.





### 3. Udalerriko eskolaz kanpoko jardueren kalitatea eta ikuspegi hezitzailea sustatzea

Badakigu eskolaz kanpo egiten diren kalitate handiko proposamenek onurak dituztela bai hezkuntzako errendimenduan, bai haur eta nerabeen gaitasunen garapenean. Gainera, hezkuntzako bazterkerien eta desberdintasunen arriskua murrizten dute, eta ekarpena egiten dute udalerrri kohesionatuagoak lortzeko. Horregatik, beharrezkoa da tokiko programak eta proiektuak sortzea eskolaz kanpo, haur eta nerabeentzako onurak areagotzeko begirada hezitzailearekin.

Estrategia horren barruan, udalak eskolaz kanpoko jardueren ikuspegi hezitzailea eta kalitatea bermatzeko tresnak sortu eta hedatzen ditu, udalerrriko haur eta nerabe guztientzako hezkuntza-ibilbideen pertsonalizazioa eta jarraipena bermatuz.

#### Neurriak

- 3.1 Udalerrriak jarduerak antolatzen dituzten **erakundeei eskuarri tekniko eta pedagogikoa eskaintzea**, eskolaz kanpoko programen eta jardueren kalitatea areagotzeko.

Beste funtzio batzuen artean, laguntza horrek jardueren tokiko eskaintzaren dibertsifikazioa bermatu beharko luke; ikaskuntzen jarraipena eta garapena arlo guztietan, bereziki jarduera teknologikoetan, zientifikoetan, kulturaletan eta artistikoetan; eta eskolaz kanpoko eta barruko ikaskuntzen lotura.

- 3.2 **Hezkuntza-sarearekin zeharkako eskumenen esparrua sortu eta adostea**, udalerrriko eskolaz kanpoko jardueretarako edo eskolako errefortzu-programentzat.

Beharrezkoa da udalerrriko hezkuntza-sarearekin haur eta nerabeek garapen sozial, hezitzaile eta pertsonalerako behar dituzten gaitasunen gaineko ikuspegi komuna eta partekatua ezartzea. Eta eskolan eskuratutako gaitasunak kanpokoekin lotzeko hizkera komuna sortzea.

Eskolaz kanpoko jardueren gaitasunen ikuspegia gakoa da, gaitasunen garapena hezkuntzako arrakastaren, arrakasta pertsonalaren eta sozialaren ezinbesteko faktorea baita. Halaber, garrantzitsua da gaitasun sozialen, erlazioen eta emozionalen garapena zehazki sustatzea, parte-hartzaileen ongizatea indartzeko, pertsona guztien adinera eta ezaugarrietara egokituta.





Alde horretatik, zeharkako gaitasunen esparruak hauek izan beharko ditu: komunikazioa, pertsonen arteko harremana, talde-lana, egoten jakitea, ingurunera egokitzea, denboraren eta espazioaren antolaketan, zaintzak, negoziazioa, gatazkak konpontzea, helburuak eta nahiak formulatu eta lortzea, asertibitatea, etab.

### 3.3 **Eskolaz kanpoko jarduerak homologatzeko sistema**

sustatu eta adostea, kalitatea eta parte hartzen duten haur eta nerabeentzako onurak bermatzeko.

Homologazio-sistemak bermatu beharko du jarduera bat antolatzen duen erakunde osoak udalerriko hezkuntza-komunitate osoarekin adostu beharko liratekeen baldintzak betetzen dituela (balioak, programazio inklusiboa, araudiak betetzea...), eta, era berean, udalerrian garatzen diren jarduera guztien kalitatea eta koherentzia bermatu beharko du.

### 3.4 **Profil profesional hezitzaileak prestatu eta gaitzea**

zereginaren kalitate hezitzailea bermatu eta aitortzeko eta laguntza hezitzailea, orientazioa eta arrisku-egoerak hautemateko gaitasunak zabaltzeko.



## 4. Udalerriko ekipamenduak eta espazio publikoa mobilizatzea eta eskolaz kanpoko hezkuntza-jardueretara egokitzea

Kataluniako udalerrien dibertsitatea handia den arren, guztiek bat egiten duten oinarritzko arloa dago: udalak dira espazio publikoaren eta ekipamenduen kudeatzaile nagusiak. Horrek balio handia du udalerrientzat, bai udalei mobilizatzeke eta tokiko eremuan ezinbestekoak diren baliabideak aktibatzeke ematen dien eskumenarengatik, bai espazio partekatuek, sozializatzekeok, parekideak, hezitzaileak eta demokratikoak sortzen direlako.

Estrategia horren barruan, udalak esku-hartzeak eta erabilera berriak sustatzen ditu espazio publikoan eta udal-ekipamenduetan, eskolaz kanpoko jardueretara egokitzeko eta erabilera hezitzailea sustatzeko.

### Neurriak

4.1 **Ikastetxeetako eta beste udal-ekipamendu batzuetako instalazioak eta espazioak zabaltzea eta eskuragarri jartzea** herritar guztientzat eskolaz kanpoko orduetan jarduera hezitzaileak egiteko, eta ekipamenduei laguntzea haien proiektua udalerriko eskolaz kanpoko programan sartzeko: eskolako liburutegia, jolastoki irekiak...

4.2 **Udal-erakundeak auzoko edo udalerriko ehundura sozialeko eta komunitateko erakundeei uztea sustatzea**, udal-araudiaren bitartez, jarduera hezitzaileak egin ahal izateko. Udalak egokitu egin beharko ditu (edo uzten dizkieten erakundeei edo zerbitzuei lagundu), osasungarriak, seguruak eta irisgarriak direla bermatzeko.

4.3 **Ikastetxearen inguruko espazio publikoa birdiseinatzea**, espazio estimulatzailea, segurua eta ludikoa izan dadin eskolaz kanpoko jarduera hezitzaileak egiteko: trafikoa baretzea, jolas liberako elementuak, komunitatean elkartzeko, etab.


Alde horretatik, Bilboko ikastetxeen inguruan egindako aldaketek erakusten dute eskari sozial handia dagoela ikastetxeen inguruak espazio ludiko eta seguru bihurtzeko

Horretarako, beharrezkoa da haur eta nerabeek erabakiak hartzeko prozesuan eta espazio publikoaren diseinuan parte hartzea.





4.4 **Udal ekipamenduei laguntzea eta aholkularitza eskaintzea,** proiektua eskolaz kanpoko arratsaldetako programarekin aberasteko. Hala, eskaintza eta jarduerak egiten diren espazioak eta lurraldeak dibertsifikatuko dira, eta udalerriko haur eta gazteak beren inguruko ekipamenduen sarera hurbilduko dira.



## 5. Udako hezkuntza-jardueren programa eskaintzea, parekidetasuna, dibertsitatea eta hezkuntzaren kalitatea bermatzeko

Eskolako oporrak hastean, haur, nerabe eta gazte askok aisialdi-jarduera hezitzaileez gozaten dute uztailean eta abuztuan: udalekuak, kanpaldiak eta ibilaldiak, kirol-campusak, kanpaldiak, jarduera komunitarioak, hainbat diziplinatako jarduketa trinkoak, etab. Baina udako jarduera hezitzaile hori ez da pertsona guztiengana heltzen, eta horrek arrakala sortzen du udako heziketan, egiten dituztenen eta egiten ez dituztenen artean.

Estrategia horretan, udalak jarduketak egiten ditu ingurunerik zaugarrienetako familiei laguntzeko, jarduera estimulatzaileen egitarau zabala, inklusiboa, dibertsifikatua eta elkarlanean eraikia eskaintzeko, eta irisgarritasun-neurriak zabaltzeko, hala nola dirulaguntzak, tramiteak erraztea, informazioa ematea erreferentziazko pertsonen bitartez eta ikastetxearen eta ingurunearen arteko koordinazioa.

### Neurriak


- 5.1 Udalerriko sail guztien (kirolak, kultura, hezkuntza, haurtzaroa, gazteria, etab.) udalerriko erakunde eta enpresa hornitzaile guztien **udako jardueren eskaintza biltzen duen katalogo bateratua sortzea**, eta udalerriko aisialdi-jarduerak dituzten hezkuntza-abantailak nabarmentzea.

Tokiko eskaintzak adin guztietako herritarren hezkuntza-beharrei erantzun beharko lioke, eta haurrek eta adinekoek beren auto-ezagutza eta garapen pertsonala sustatzeko esperientziez goza dezaten estimulatu.

Halaber, parte-hartzaileei ingurunea ezagutzeko aukera eskaini beharko litzaieke eta komunitateko kide izatearen sentimendua sustatu, udako jardueren inguruan elkarrekin eratzeko metodologiaren eta herritarren parte-hartzearen bitartez.

- 5.2 **Udako katalogo osoan aplikagarria den kalitatearen, parekidetasunaren, orekaren eta inklusioaren irizpideak ezartzea**, jarduerak espazio inklusiboak, ez-baztertzailerak, irisgarriak, erosoak eta seguruak izan daitezten.

Udako jardueren tokiko katalogo bakarra egitearekin batera, irizpide komunen zerrenda egin daiteke, udako jarduera guztiek auzo eta profil sozio-hezitzaileetako haur eta nerabe guztien parte-hartzea susta dezaten, kohesio eta nahasketa soziala bultzatu dezaten eta erlazio libreak eta genero-estereotiporik, klase sozialen estereotiporik eta estereotipo sozio-kulturalik gabek sor ditzaten.



Kalitatezko irizpideak betetzen direla bermatzeko, tokiko hitzarmena, edo homologazio-sistema egin daiteke, edo udako jardueretako profesional eta boluntarioentzako prestakuntzarako udal-laguntzak edo espazioak sor daitezke.

**5.3 Udako beka eta dirulaguntzak sortzea** pobrezia-egoeran dauden 6 eta 16 urte bitarteko pertsona guztiek udako kanpalekuetan parte har dezaten bi astean gutxienez.

Laguntzek irisgarriak izan behar dute: nork eska dezakeen eta zer prozedura jarraitu behar diren jakiteko informazioak lortzeko eta ulertzeko erraza izan behar du, muga linguistiko eta digitaletatik harago.

Prozedura luzeak ekiditeko (balorazio-prozedura duten deialdiak), gizarte-zerbitzuen jarraipena edo jantokiko beka duten familiei zuzenean esleitzeko sistema ezar daiteke. Jardueren prezioaren tarifa sozialak eta izen emateko sistema bateratua ere lagungarriak izan daitezke eskaintza irisgarriago egiteko eta udan zehar hezkuntzako berdintasuna bermatzeko.



- 5.4 **Kostu baxuko edo doako zerbitzu osagarriak eskaintzea (jantokia, harrera, etab.),** gastua ordaindu ezin duten familietako haur, nerabe eta gazteen beharrak asetzeko.

Prezioak murriztu edo jarduerak doan izatearekin batera, beharrezkoa da egun osoko jardueren (udako kanpalekuak) zerbitzu osagarriak doan eskaintzea zailtasun ekonomikoak dituzten familiei, esaterako, harrera-zerbitzua eta jantokia, horien kostua parte hartzeko zailtasuna izan ez dadin.

- 5.5 **Hezkuntzako preskripzioa eta familientzako laguntza sustatu eta egituratzea,** zaurgarritasun-arriskuan dauden eta udako jardueretan oso ohikoak ez diren haur eta gazteek parte hartzen dutela bermatzeko.

Familiarik zaurgarrienetako hezitzaile erreferenteek eta gertukoek (hala nola tutoreak, hezitzaileak, gizarteratzeko teknikariak, bitartekariak, etab.) rol oso esanguratsua dute profil horiek udako-jardueretan parte har dezaten eta eskuratzen diren ikaskuntzez baliatu daitezkeen lortzeko garaian.

Pertsona horien rol preskriptiboa sustatzeko, jarduteko protokoloa ezartzea komeni da udako jarduerak hasi aurreko hilabeteetan, funtzioak eta zereginak zehazteko. Halaber, ad hoc prestakuntza antolatu behar da jarduketak eta rolak indartzeko, eta figura preskribatzaile bakoitzarentzat karpeta bat egin eta eman, udako programazio osoarekin, jarduera bakoitzaren deskribapenarekin, udalerrian edo eskualdean lehenetsi diren helburuekin, prozedurekin eta izena emateko egutegiarekin. Azken finean, udako-programaziora erakarri nahi diren familia guztiei helarazteko preskribatzaileek jakin beharreko informazio guztia izan behar du.

